

Praktikaldi Prozesuaren Hasierako Formakuntza
PRACTICUM II-III
GIZARTE HEZKUNTZA GRADUA

Practicuma funtsezko elementua da Gizarte Hezkuntzako Graduako ikasketa planaren barruan. Unibertsitateko ikasketak lanbidera hurbiltzen saiatzen da, testuinguruan oinarritutako esperientzia praktikoa bat sustatuz. Practicumaren bidez, ikasleak hezkuntza eta gizarte errealitatera hurbiltzen dira eta errealitate horretan integratzen dira, ondoren beren lanbide jarduna zein izango den behatuz, aztertuz eta hausnartuz. Practicumaren bidez, gaitasun profesional batzuk praktikan jartzeko aukera ere izango da.

Horrela, prestakuntza aldi honek hausnarketa eta azterketa esparru bat errazten du, praktika profesionalak prestakuntza testuinguru akademiko batean sartzeko, hainbat eskaera profesionali aurre eginez, teoria, praktika eta hausnarketa bateratuz, eta Gizarte Hezkuntzaren inguruko diskurtsoak eraikitzen laguntzen duten diziplina desberdinekin loturak ezarriz.

Practicum honetan gaitasun hauek lortzea espero da:

Gaitasun orokorrak

1. Gizarte Hezkuntzako testuinguruetan modu profesionalean esku hartzea, Gizarte Hezkuntzarekin lotutako diziplinen oinarri teoriko-praktikoetan oinarrituta, eta gako etikoak eta deontologia profesionala errespetatzea oinarri hartuta.
2. Bere hezkuntza-ekintzez arduratzea, gizarte-hezitzailearen lanbide-nortasuna eta lanbide-funtzioak aitortuz.
3. Gizarte Hezkuntzaren izaera eta praktika profesionalari buruzko ezagutza elkarlanean eraikitzea, praktikaren ikerketaren eta analisiaren bidez.
4. Gizarte hezitzaileen lan profesionalari buruzko gogoetak modu arrazoituan komunikatzea, idatziz zein ahoz, bai eta gizarte-hezitzaileak parte hartzen duten erakundeen kulturari buruzkoak ere.
5. Gizarte Hezkuntzaren esparruan gizarte eta hezkuntza proiektuak planifikatzea, garatzea eta ebaluatzea, gogoeta eginez, eta errealitate jakin baten diagnostikotik ateratako ondorioak erreferentzia gisa erabiliz.
6. Hezkuntza eta gizarte prozesuak, testuinguruak eta baliabideak aberasteko eta hobetzeko hezkuntza proposamenak eta tresnak garatzea.
7. Diziplinarteko eta erakunde arteko taldeetan lan egiteko gaitasuna.

Garapen Jasangarrirako Gaitasunak

8. Ezagutza modu kritikoan testuinguruan jartzea, tokiko eta/edo mundu mailako gizarte, ekonomia eta ingurumen arazoekin elkarrekiko harremanak ezarriz.
9. Baliabideak modu jasangarrirako erabiltzea eta ingurune naturalean eta sozialean eragin negatiboak saihestea.
10. Jasangarritasuna sustatzen duten komunitate prozesuetan parte hartzea.
11. Jasangarritasun balioekin lotutako printzipio etikoak aplikatzea jokabide pertsonalean eta profesionalean.

Gaitasun hauek lortzeko, praktiken prozesua lau ekintzatan antolatzen da.

1. Practicumaren aurkezpena (taldekoa)
2. Hasierako prestakuntza praktika-prozesuan (banakakoa eta taldekoa), EHUko tutorearekin batera.
3. Praktikak zentroetan (banaka), erakundeko instruktoreak gidatuta.
4. Hausnarketarako eta jarraipenerako mintegiak (taldekoa, EHUko tutorearekin eta mintegia osatzen duten ikasle taldearekin batera).
5. Praktika prozesuaren memoria (banakakoa).

Hurrengo orrialdeetan, ikasle bakoitzak bere praktika prozesuan egin behar duen eta bere memorian sartu behar duen hasierako prestakuntzaren garapena aurkezten da. II. Practicumaren hasieran egingo den hasierako prestakuntza honen bidez, ikasleek honako hauek lortzea espero da:

- Praktikaldi erakundea eta aurrera eramaten den programa, zerbitzu edo proiektua mapa profesionalean kokatzea.
- Praktikaldi programa, zerbitzu edo proiektuaren barruan Gizarte Hezkuntzaren rol profesionala ulertzea.
- Gizarte Hezkuntzako lanbide ekintza bideratzen duten printzipioak eta arauak ulertzea eta aplikatzea, Kode Deontologiko Profesionalaren bidez.
- Lanbide jardunaren azterketa eta hausnarketa errazten duten tresnak ezagutzea.

Prestakuntza-jarduerak jasangarritasun-irizpideak eta garapen iraunkorrerako hezkuntza erabiliz egingo dira. Hiru jardueren amaieran, parte-hartzaileek landutako edukiak Garapen Jasangarriarekin duen erlazioari buruz hausnartuko dute.

Hasierako formakuntza ikasleek hiru formakuntza desberdinetan egingo duten lanaren bidez gauzatuko da. Formakuntzak hiru mintegitan zuzenduko dira, eta erreferentziako tutorearekin adostu eta egutegiratuko dira. Formakuntza bakoitzak jarduera bat izango du, eta ikasle bakoitzak prestatu eta egin beharko du dagokion mintegia baino lehen. Jarduera hori osatu, tutoreari eman eta dagokion Practicumaren memorian sartu beharko du. Mintegian, partekatu egingo da eta hortaz hausnartuko da.

1. FORMAKUNTZA	Erakundearen testuingurua eta Gizarte Hezitzaileak bertan duen rol profesionala
2. FORMAKUNTZA	Gizarte Hezkuntzaren Kode Deontologiko Profesionala
3. FORMAKUNTZA	Informazioa biltzeko tresna metodologikoak

LEHENENGO FORMAKUNTZA

Erakundearen testuingurua eta Gizarte Hezitzaileak bertan duen rol profesionala

HELBURUA

- Practicum erakundea eta praktikaldi programa, zerbitzu edo proiektua Gizarte Hezkuntzako mapa profesionalean kokatzea.
- Gizarte Hezkuntzaren rol profesionala praktikaldiaren barruan ulertzea.

DESKRIBAPEN OROKORRA

Practicum II-ko lehen formakuntza honek bi zati ditu.

Lehenik eta behin, erakundea kokatuta dagoen testuingurua eta praktikak egingo diren programa, zerbitzu edo proiektua aurkeztuko da. Practicum I-ean eduki hau landu zen, eta, beraz, prestakuntza honen lehen zatia aurretik landutakoa gogorarazteko modukoa da.

Bigarrenik, jarraibide batzuk emango dira Gizarte Hezitzaileak praktiken testuinguruan duen rol profesionala identifikatzeko.

Jarduera banaka prestatuko da mintegian parte hartu aurretik, bertan eztabaidatu, hausnartu eta osatu ahal izateko. Jarduera etxean amaituko da eta dokumentu bakar batean aurkeztuko da idatziz. Dokumentu hori tutorearekin adostutako sistemaren bidez entregatuko da, eta Practicumaren memorian sartuko da.

FORMAKUNTZAREN HASTAPEN OROKORRAK

Gizarte Hezkuntzako Practicuma hainbat gizarte erakundek egiten dituzten ekintza soziohezitzaileen testuinguruan kokatzen da. Ekintza soziohezitzaile horiek erakunde hauek aurrera eramaten dira programa, zerbitzu edo proiektu desberdinen bidez. Gutxitan, udalek edo aldundiak eskaintzen dute praktiken lan esparrua.

Esan beharra dago, askotan, erakundeek kudeatzen dituzten programa, zerbitzu edo proiektuak lege testuinguru baten barruan kokatzen direla. Gizarte politiken babespeko testuinguru soziohezitzaileak, hain zuzen ere, Gizarte Zerbitzuen euskal sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Zorroa arautzen duen dekretuaren testuinguruan kokatzen dira, Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legean aurreikusitako zerbitzu eta prestazioetarako eskubideari zehaztasun praktikoa emanik, urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren bidez.

Aipatutako legegintza testuinguruaz gain, ekintza soziohezitzaileak babesten dituzten beste legedi batzuk ere egon daitezke, hala nola justiziarekin, kulturarekin, osasunarekin edo euskararekin lotutako beste sistema batzuetatik datozenak. Neurri txikiagoan, ekintza soziohezitzaileak ekimen propio eta independenteen bidez egiten duten erakundeak ere aurki daitezke.

Bestalde, eskuhartze soziala Gizarte Hezkuntzaren berezko funtzioa dela ulertuta, ekintza horiek kokatzen diren testuinguruak Gizarte Hezitzaileek bete behar duten rol profesionala definitzeko

bidea emango du, eta beren lanbidearen berezko funtzioak zein izan daitezkeen adieraziko du. Gai hau funtsezkoa da Gizarte Hezkuntza legitimatzeko, identitate propioa emanaz eta lan testuinguruak partekatzen dituzten beste lanbide batzuetatik bereiziz.

FORMAKUNTZAREN GARAPENA

Lehenengo prestakuntza garatzeko, jardueraren bi zatietan planteatutako galderei erantzun. Galderak erantzun ondoren, eraman itzazu prest mintegira, taldeko gainerako kideekin partekatu eta osatu ahal izateko.

1. Zatia

Praktika erakundeak kudeatzen duen programa, zerbitzu edo proiektua kokatu, deskribatu eta testuinguruan azaldu dezakezu?

Galdera erantzun baino lehen irakurri aurkezten den azalpena.

Oro har, erakundeek hainbat programa, zerbitzua edo proiektuen bidez gauzatzen dute beren ekintza soziohezitzailea. Ziurrenik praktikak egingo dituzun erakundearen barruan, programa, zerbitzua edo proiektu jakin batean kokatuko dira.

Adibidez, praktikak Emausen (praktika erakundea edo entitatea) egitea tokatzen bazaizu, komenigarria litzateke jakitea Emausen barruan zein programa, zerbitzu edo proiektuan egingo dituzun praktikak, Emausen barruan praktikak egiteko hainbat programa, zerbitzu edo proiektu bait daude. Emausen kasuarekin jarraituz, esate baterako, praktikak Isla-Uba izeneko zentroan egingo badituzu (Isla-Uba, Emausek kudeatzen duen zentro bat da), jakin beharko zenuke, zehazki, zentro hau bazterkeria eta marjinazio arriskuan dauden pertsonentzako egoitza zentro bat dela. Gainera, zerbitzu hau zertan datzan azaldu beharko zenuke. Horrez gain, zerbitzu hori zergatik existitzen den hausnartzen ere saia zaitezke, honako galdera hauen bidez: Isla-Ubaren kasuan, zure ustez, erakundearen berezko zerbitzua da, hau da, Emausena? Edo, zure ustez, beste leku batzuetan ere badago eta beste erakunde batzuek kudeatzen dituzte? Zerbitzua gauzatzeko beharrezkoa den dirua, nondik ateratzen da? Emausetik? Edota beste leku batetik?

Azalpen hau ulertu ondoren orain, praktikak egingo dituzun programa, zerbitzu edo proiektuari buruz hausnartu. Horretarako, adibidean erabilitako galdera berberak gida moduan erabili.

Praktiken lekuari buruzko hausnarketa egin ondoren, zure praktiketako entitatea, programa, zerbitzua edo proiektua zertan datzan labor azaltzeko eskatzen dizugu. Azaltzea erraza da; izan ere, ziurrenik entitatearen webgunean, edo praktikak hasi badituzu erakundean bertan, informazio hori lor dezakezu.

Lehenengo zati hau amaitzeko, kokatu zure praktikak. Oro har, praktikak lau kasuistika desberdinetan koka daitezke.

1. Kasuistika	Gipuzkoako udalerrietako udalek sustatzen dituzten programa, zerbitzu edo proiektuen barruan, udalek diruz lagunduta, lizitazio kontratu baten pean.
2. Kasuistika	Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatzen dituen programa, zerbitzu edo proiektuen barruan, aldundiak berak diruz lagunduta, lizitazio-kontratu baten pean.
3. Kasuistika	Eusko Jaurlaritzak sustatzen dituen programa, zerbitzu edo proiektuen barruan, Eusko Jaurlaritzak berak diruz lagunduta, lizitazio-kontratu baten pean.

4. Kasuistika	Erakundeak zuzenean kudeatutako eta funts propioen edo udalen edo aldundiaren laguntzen bidez diruz lagundutako ekimen propio baten barruan.
---------------	--

Zure praktikaldiaren programa, zerbitzu edo proiektua, zure ustez, lau testuinguru horietakoren batean kokatu daiteke? Praktikaldiaren erakundeak kudeatzen duen programa, zerbitzu edo proiektua udalaren menpe egon daiteke? Aldundiaren menpe egon daiteke? Eusko Jaurlaritzaren menpe egon daiteke? Edo erakundearen mende egon daiteke zuzenean?

Udalean, Gipuzkoako Foru Aldundian edota Eusko Jaurlaritzan dagoen programa, zerbitzu edo proiektua batean kokatzen bada, zure ustez zein sail, arlo edo ataletan koka daiteke?

Azkenik, uste duzu legeren baten babesean kokatzen dela praktikak egingo dituzun programa, zerbitzu edo proiektu zehatza?

2. Zatia

Practicum I-eko zure esperientziatik eta Practicum II hau egingo duzun testuingurutik abiatuta, aipatu ditzakezu Gizarte Hezkuntzaren berezko funtzioak batzuk?

Lagugarri bazaizu, ekintza zehatzetan pentsa dezakezu, gero funtzioekin erlazionatzeko.

Identifikatutako Gizarte Hezkuntzarekin erlazionatutako ekintza propioak nire Practicum lean	Ekintza hauek, ze funtzio profesionaleei erantzuten diete?

Zure aurreko praktiketan behatu eta adierazitako funtzio batzuk adierazi ondoren, Gizarte Hezitzailearen funtzioen eta gaitasunen katalogoa irakurtzeko eskatzen dizugu. Katalogo hori ASEDESek (2007) egindako "dokumentu Profesionalizatzaileak" dokumentuan aurki dezakezue, zehazki 35-43 orrialdeetan.

<http://www.eduso.net/wp-content/uploads/2019/11/Profesionalizaziorako-Dokumentuak-GH.pdf>

Azken bi orrialdeetan (46-47), laburpen-taula bat dago gizarte-hezitzaileek modu profesionalean bete ditzaketen SEI funtzioekin. Sei funtzio horien laburpena ere prestakuntza honen amaieran aurki dezakezu.

Hurrengo koadroan, aurreko taulan identifikatu dituzun ekintzak eta funtzioak Gizarte Hezkuntzak betetzen dituen berezko einkizunen barruan kokatu.

Identifikatutako Ekintzak	Identifikatutako funtzioak	Gizarte Hezkuntzaren funtzio propioak

Hasierako jarduera hauekin lotuta, Garapen Jasangarriaren eta jarduera bakoitzean landutako edukiaren inguruko analisia eta hausnarketa sustatzen duten galdera hauek erantzun.

1. Zein Garapen Jasangarriko Helburu (GJH) daude zuzenean edo zeharka lotuta praktikak egiten ari zaren erakundearen misioarekin eta jardurekin? Azaldu. (adibidez, 4. GJH Kalitatezko Hezkuntza, 10. GJH Desberdintasunen Murrizketa, 5. GJH Genero Berdintasuna, etab.)
2. Nola laguntzen du parte hartzen duzun programak, zerbitzuak edo proiektuak garapen jasangarrian gizarte, ekonomia edo ingurumen mailan?
3. Nola lagun dezake gizarte hezitzailearen eginkizunak zure praktikaldi testuinguruan garapen justuagoa, inklusiboagoa eta jasangarriagoa sustatzen?
4. Gizarte hezitzaile baten zein gaitasun edo trebetasun uste dituzu ezinbestekoak GJHekin lotutako proiektuetan lan egiteko?

Ariketa egin ondoren, eraman ezazu mintegira, partekatu, eztabaidatu eta osatu ahal izateko. Horrela, gogoeta egin ahal izango duzu Gizarte Hezkuntzaren berezko funtzio profesionalizatzaileei buruz.

GIZARTE HEZKUNTZAREN SEI FUNTZIOEN ETA HAUEN GAITASUNEN ARTEKO KORRELAZIOA (ASEDES, 2007)

	FUNTZIOA	GAITASUNA
1	Kulturaren transmisioa, prestakuntza, garapena eta sustapena.	- Gizarte balioko kultura ondasunak aintzat hartzen jakitea. - Hezkuntza eta heziketarako metodologiak menderatzea. - Aholkularitza eta orientabiderako metodologiak menderatzea. - Kulturaren transmisiorako formak hezkuntzaren subjektuen berezitasunera moldatzeko gaitasuna. - Gizarte eta kulturaren dinamizaziorako metodologiak menderatzea. - Kulturaren zabalkunde eta kudeaketa parte-hartzailerako gaitasuna.
2	Gizarte sareen eta hezkuntza eta gizarte testuinguru, prozesu eta baliabideen sorrera	- Trebetasuna gizarterako gaitasunaren, gizarte zirkulazioaren eta gizarte eta kulturaren sustapenaren garapena bultzatzen eta sustatzen duten lekuak identifikatzeko. - Ezagutza eta trebetasuna, pertsonen, kolektiboen eta instituzioen artean sareak sortzeko eta sustatzeko - Pertsonen artean eta gizarte taldeen artean harremanak bultzatzeko gaitasuna. - Hezkuntza-harreman berezietarako aukerak eskainiko dituzten esparruak sortzeko eta egonkortzeko gaitasuna. - Hezkuntza prozesuak aberastu eta hobetzeko tresnak eta bitartekoak lantzen jakitea. - Trebetasuna gizarte eta kultura prozesuak abiarazteko.
3	Gizarte, kultura eta hezkuntza bitartekaritza	- Bitartekaritzaren gaineko ezagutza teorikoak eta metodologikoak, haren adar guztietan. - Harremanetan jarri beharreko kultura-eduki, leku, pertsona edo taldeak ezagutzeko trebetasuna. - Prozesuetako urratsak edo tresnak praktika bitartean ezagutaraztea. - Edukiak, pertsonak, kolektiboak eta instituzioak harremanetan jartzen jakitea.
4	Gizarte eta hezkuntza testuinguruen ezagutza, azterketa eta ikerketa	- Testuinguru jakin bateko hezkuntza premiak atzemateko gaitasuna. - Komunitatearen garapen planen eta tokiko garapenaren gaineko ezagutza. - Trebetasuna premien aurrean eman beharko liratekeen erantzunak zehazteko unean, beste arlo batzuetako erantzun posible batzuetatik bereiziz (asistentzia, osasuna, terapeutika, eta abar). - Gizarte Hezitzailearen jarduerak ahalbideratzen, orientatzen eta legeztatzen dituzten lege-esparruen ezagutza eta aplikazioa. - Gizarte eta hezkuntza egoera aztertze eta ebaluatzeko gaitasuna (errealitatearen azterketa). - Gizarte, hezkuntza eta kultura politiken ezagutza.
5	Hezkuntza programa eta proiektuen diseinua, inplementazioa eta ebaluazioa	- Gizarte-hezkuntza jarduera arautzen duten oinarrizko dokumentuak formalizatzeko gaitasuna: zentroaren proiektua, barne erregimenerako araudia, lanaren plangintza, banakako hezkuntza-proiektua eta beste gizarte-hezkuntza txosten batzuk. - Irakaskuntza-programen eta /edo ekintzen plangintza, programazio eta diseinurako teknikak menderatzea. - Ebaluatzeko metodoetarako teknikak ezagutza. - Hezkuntza instituzio eta baliabideen kudeaketa, zuzendaritza, koordinazioa eta antolakuntza.
6	Hezkuntza instituzio eta baliabideen kudeaketa, zuzendaritza, koordinazioa eta antolakuntza.	- Programa, ekipamendu eta giza baliabideen zuzendaritzarako eredu, teknika eta estrategiak menderatzea. - Trebetasuna proiektu, programa, zentro eta hezkuntza baliabideen kudeaketan. - Gizarte eta/edo hezkuntza izaerako erakunde eta elkarteak antolatze eta haien hezkuntza zerbitzuen kudeatzeko gaitasuna. - Eskaintako zerbitzua aintzat harturiko helburuen arabera ikuskatzeko gaitasuna. - Proiektuen zabalkunderako teknikak eta estrategiak menderatzea.

BIGARREN FORMAKUNTZA

Gizarte Hezkuntzaren Kode Deontologiko Profesionala

HELBURUA

- Gizarte Hezkuntza lanbidea bideratzen duten printzipioak eta arauak ulertzea eta aplikatzea, Kode Deontologiko Profesionalaren bidez.

DESKRIBAPEN OROKORRA

Bigarren formakuntza honetan, deontologia profesionalak Gizarte Hezkuntzan duen garrantziaz hausnartuko da. Horretarako, Gizarte Hezkuntzako Kode Deontologiko Profesionala errepasatuko da eta honen inguruko kasu bat landuko da. Kasua elkarrekin eztabaidatu eta hausnartuko dira mintegian.

Jarduera banaka prestatuko da mintegian parte hartu aurretik, bertan eztabaidatu, hausnartu eta osatu ahal izateko. Jarduera etxean amaituko da eta dokumentu bakar batean aurkeztuko da idatziz. Dokumentu hori tutorearekin adostutako sistemaren bidez entregatuko da, eta Practicumaren memorian sartuko da.

FORMAKUNTZAREN HASTAPEN OROKORRAK

Gizarte Hezkuntzaren Kode Deontologiko Profesionala funtsezko tresna da izaera pedagogikoa duen lanbide honen gatazkak eta dilema etikoak bideratzeko. Izan ere, Gizarte Hezitzaile guztiek ezagutu eta onartu behar duten tresna da.

Zaugarritasun edo bazterkeria sozialeko egoeran dauden pertsonekin lan egiteak testuinguru konplexuak sortzen ditu, eta horietan ohikoa da bizipen eta sinesmena pertsonalak eta profesionalak nahastea. Horrela, lan honetan sortzen diren erlazioek gatazkak sor ditzake Gizarte Hezitzailearen eta erabiltzaileen artean, lanbideari dagokionez. Era berean, profesionaltasunetik urruntzen diren egoerak sor ditzake langile taldearen beraren eta lan egiten den erakundearen beraren artean. Azkenik, komunitatean dauden zerbitzuekin eta komunitateko pertsonekin lan egitea ohikoa den praktika profesionalaren barruan, arazoak ere sor daitezke.

Estatuko Gizarte Hezitzaileen Elkarteak ([ASEDES](#)) 2007an egindako [dokumentu profesionalizatzailean kontsulta daiteke Kode Deontologiko Profesionala](#). Dokumentu honek erreferentzia gisa balio du lanbide profesionalak estatu osoan egiten duen lana gauzatzeko, eta lanbide horren lanbide-ekintza bideratzen duten printzipioak eta arauak ezartzen ditu.

FORMAKUNTZAREN GARAPENA

Bigarren prestakuntza hau garatzeko, hurrengo bi ataletan planteatutako galderei erantzun. Erantzun ondoren, eraman itzazu prest mintegira, gainerako taldekideekin partekatu eta osatu ahal izateko.

1. Parte

Gizarte Hezkuntzaren Kode Deontologiko Profesionalerako Sarrera

Practicum I delakoan Kode Deontologikoa landu zen. Gogorarazteko, erantzun zure hitzekin aurretik landutako gai hauei:

- Zer da Gizarte Hezkuntzako Kode Deontologiko Profesionala?
- Zure ustez, zergatik sortzen da Kode Deontologiko Profesional hau?
- Zertarako balio du?

Behin Kode Deontologiko Profesionala gogoratuta, aurkezten den dilema etikoa bideratuko duen hausnarketa bat egin behar duzu, kasu azterketa baten bidez. Mintegian hausnarketa hori egiteko erabiliko den metodologiak lau urrats izango ditu:

1. URRATSA	Gatazka-dilema ulertu	Zein edo zeintzuk dira kasuan identifika daitezkeen gatazkak edo dilemak?
2. URRATSA	Besteei entzutea eta iritziak alderatzea	Zein da nire iritzia? zein da besteen iritzia?
3. URRATSA	Kode Deontologiko profesionala kontsultatu	Kode Deontologiko Profesionala abiapuntutzat hartuta, ze printzipio orientatzaileak aplikatu daitezke?
4. URRATSA	Taldean adostutako erabakiak hartzea	Ze erabaki hartzen dut mintegiko gainerako pertsonen eta Kode Deontologiko Profesionalaren laguntzarekin, identifikatutako gatazkari edo dilemari erantzuteko?

Mintegira joan aurretik, kasua banaka irakurtzea, gogoetak egiteko eta kasuaren erantzuna prest eramateko eskatzen dizugu. Honetarako, modu indibidualean jarraitu aipatutako lau urratsak. Egia da 2. urrats guztia ezin dela bakarrik egin, ze beste pertsonekin kontrastatu behar da. Hala ere, ariketa prestatuta eraman behar da.

Gogoratu, Kode Deontologiko Profesionalak dioen bezala, gatazkak edo dilemak honela bideratuta egon daitezkeela:

Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartze mota guztietan ekintza profesionala arautzeko printzipio orientagarriak	
1	Edozein esku-hartze sozioedukatibotan giza eskubideak errespetatzea.
2	Gizarte- eta hezkuntza-ekintzako subjektuen autonomia eta askatasuna errespetatzea.
3	Justizia soziala, arreta berezia jarrita gizarte- eta hezkuntza-zerbitzuak jasotzeko eta gizarte-egoera bidegabeak murrizteko eskubideari.
4	Profesionaltasunez jardutea, gizarte-hezitzailearen gaitasuna, kualifikazioa eta etengabeko prestakuntza eskatuz.
5	Laguntza, aitortuz gizarte-hezitzailea ez dela protagonista, bitartekaria baizik, pertsonak, taldeak edo komunitateak hobetzeko ahaleginean.
6	Autonomia profesionala defendatzea, hezkuntza-ekintzen ondoriozko erantzukizuna bere gain hartuz.
7	Koherentzia instituzionala, esku hartzeko enkargua, hezkuntza-proiektua eta lan egiten den erakundearen barne-araudia errespetatuz.

8	Konfidentzialtasuna, sekretu profesionala gordez eta datuak beste profesional batzuekin partekatzean intimitaterako eskubidea errespetatuz.
9	Elkartasun profesionala, gizarte- eta hezkuntza-ekintzan parte hartzen duten gainerako profesionalekin jarrera eraikitzailea mantenduz.
10	Komunitatearen parte-hartzea sustatzea, komunitatearen inplikazioa sustatuz hezkuntza-lanean.
11	Talde-lana eta diziplinartekotasuna, eraginkortasunez koordinatuz eta gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzean zeharkako irizpideei garrantzia emanez.

Gainera, 11 printzipio orientatzaile horiek honela artikulatuta egon daitezke:

1. Gizarte Hezitzailea ekintza soziohezitzailearen subjektuei dagokionez.
2. Gizarte Hezitzailea, bere lanbideari dagokionez.
3. Gizarte Hezitzailea taldeari dagokionez.
4. Gizarte Hezitzailea, bere lana egiten duen erakundeari dagokionez.
5. Gizarte Hezitzailea, gizarteari oro har dagokionez.

Aurkezten den kasua, ze gatazkak edo dilemak aurkezten ditu eta zeinekin bideratuak daude?

2. Partea

Kasu azterketa:

Gizarte Hezitzaile batek bazterkeria eta marjinazio egoeran dauden pertsonentzako egoitza zentro batean lan egiten du. Lan egiten zuen bitartean, hezitzaileak harreman afektibo eta intimoa izan du adin nagusiko gazte batekin. Bion arteko erlazioa hasieratik ezkututzen saiatu dira. Bientzako azaltzeko oso zailak diren egoerak eta hainbat nahaste eta egoera deserosoak direla eta, azkenean, biek zentroko zuzendaritzari beraien erlazioa aitortu diote.

Dirudienez, harremana hezitzaile batzuek ezagutzen zuten, baina ez talde osoak. Egoera ezagutzen zuten hezitzaileek ez zuten nahi beste hezitzaileei esatea uste baitzuten inplikaturako hezitzaile berak zuzenean konpondu beharreko gai pertsonala zela eta.

Egoitzaren gainerako erabiltzaileek ere erlazio sentimental bat zegoela bazekiten. Hala ere ez zuten ezer esan nahi egoera konplexu horrek sortu ditzakeen ondorio larriengatik (bai bikotearentzat, bai erabiltzaileentzat). Hau horrela izanda, askotan gezurrak esatera behartuta aurkitzen dira erlazioa ezkutatzeko.

Zuzendaritza, gaiaren larritasuna ikusita, dagokion hezitzailearekin bildu da eta berak lana uzteko proposatzen dio, bere jarrera ez baita profesionala izan. Hezitzaileak onartu egiten du eta lana bere borondatez uzten du.

Gaztearekin, berriz, zuzendaritzak zaugarritasun-egoera baloratu ondoren, egoeraren larritasuna adieraziz hitz egitea erabaki dute, eta esan diote ez dutela egoitzatik botako. Halaber, erabaki dute Gipuzkoako Foru Aldundiari egoeraren berri ez ematea, erakunde horrek diruz laguntzen baitu zentroa, eta erakundea behartuta baitago gertatzen den guztiaren berri ematera.

Hezitzaileak, lana eta egoitza utzi ondoren, gaztearekin harremana izaten jarraitzen du. Gaia ezagutzen ez zuten hezitzaileak aspalditik gertatutakoaz ohartzen dira. Horrek hezkuntza taldearen barruan haustura dakar, informazioa ezkutatu egin baita, bai hezitzaile taldearen aldetik, bai zuzendaritzaren aldetik.

Hasierako jarduera hauekin lotuta, Garapen Jasangarriaren eta jarduera bakoitzean landutako edukiaren inguruko analisia eta hausnarketa sustatzen duten galdera hauek erantzun.

1. Nola lagun dezake gizarte hezitzaileen jokabide etikoak komunitate jasangarriagoak, bidezkoagoak eta justuagoak garatzen?
2. Uste duzu garapen jasangarriaren ikuspegiarekin lan egitea betebeharrak etikoak dela gizarte hezkuntzako profesionalentzat? Zergatik?
3. Kasu-azterketan urratu diren printzipio etikoak identifikatu ondoren, nola lotzen dituzu justiziarekin, berdintasunarekin eta ongizatearekin lotutako Garapen Jasangarriaren Helburuekin?
4. Uste duzu Kode Etikoa garapen jasangarriarekiko eta GJHekiko konpromisoa modu esplizituagoan jaso beharko lukeela? Zer gehituko edo aldatuko zenuke?

Ariketa egin ondoren, eraman ezazu mintegira, partekatu, eztabaidatu eta osatu ahal izateko.

HIRUGARREN FORMAKUNTZA

Informazioa jasotzeko tresna metodologikoak

HELBURUA

- Praktika profesionalaren azterketa eta hausnarketa errazten duten tresnak ezagutzea.

DESKRIBAPEN OROKORRA

Hirugarren prestakuntza honetan gertakari kritikoa aurkeztuko da, testuinguru soziohezitzaileak aztertzeko.

Prestakuntza mintegian zuzenean egingo da, eta ikasleak ez du jarduerarik prestatu beharrik izango. Prestakuntzaren emangarriak bi zati izango ditu. Alde batetik, tutoreari emango zaio mintegian bertan egiten den jarduera, bertan adostutako sistemaren bidez, eta hori ere Practicumaren memorian sartuko da; eta, bestetik, gogoeta-egunkaria eta horren ondorengo analisia sartuko dira Practicumaren memorian.

HASIERAKO HASTAPENAK

I. Practicumean, gogoeta egunkaria landu da, eskuhartze soziohezitzaileen testuinguruak eta praktikak aztertzeko tresna gisa. Practicum II honetan gertakari kritikoa landuko da.

"Un incidente crítico es un evento, **una situación**, que se produce en el marco de una actividad, en un contexto determinado, y que cobra especial **relevancia** (tanto como situación problemática o positiva) impactando en quien lo recibe (en quien **impacta**) y promoviendo en la persona algún tipo de **reacción**" (Navarro y Barroso, 1998, citado en Monereo, 2010)

Gertakari kritikoaren bidez, egoera beraren hausnarketa egiten da eta horren ondorioz hartzen diren erabakiak aztertu eta hausnartu nahi dira. Horrela, gertakari kritikoaren erabilera ekintza praktikoari buruzko hausnarketara bideratutako estrategia bat bezala aurkezten da.

FORMAKUNTZAREN DESKRIBAPEN OROKORRA

Gertakari kritikoarekin hasi aurretik, egunkariaren eta behaketa sistematikoaren helburua gogoratuko, informazioa biltzeko eta aztertzeko teknika eta tresna gisa. Horretarako, ikasle bakoitzak aurreko ikasturteko Practicumean egindako eguneroko adibide bat eta behaketa sistematikoaren adibide bat aukeratuko ditu, eta mintegira eramango ditu, gainerako taldekideekin partekatu ahal izateko. Aurkezten den egunkariak aurreko ikasturteko egiturari jarraitu beharko dio. Horretarako, egunkaria gidatzen duen adierazlea (egunkaria zertan finkatu nahi den), deskribapena eta egunkari horretan deskribatutako informazioan oinarrituta egiten

den hausnarketa zehaztu beharko dira. Behaketa sistematikoaren adibidea Gizarte Hezkuntzak praktiken ingurunean dituen funtzioen inguruan egindako behaketan oinarrituko da.

Taldean adibideak aurkeztu ondoren, mintegian aurkeztuko den PPTari erreparatuko zaio eta mintegian bertan aurkeztuko den gertakari kritikoa aztertuko da.

Gertakari kritikoaren bideoa ikusi ondoren, ikasle bakoitzak bertan ikusi duena idatziz jasoko du, mintegian zehaztuko diren gertakari kritikoak jasotzeko irizpideei jarraituz.

Hasierako jarduera hauekin lotuta, Garapen Jasangarriaren eta jarduera bakoitzean landutako edukiaren inguruko analisia eta hausnarketa sustatzen duten galdera hauek erantzun.

1. Nola lagun dezake gertakari kritikoaren analisiak garapen jasangarriaren printzipioekin lerrokatutako hezkuntza esku-hartzeak?
2. Zure praktikako (lehenengo Practicumean, izandako beste esperientzietan,...) zein gertakari kritikok agerian utzi dituzte desberdintasunak edo eskubideen urraketak? Nola jorratu ditzakezu zure lanbide-eginkizunetik?
3. Zer paper jotzen du hausnarketa sistematikoak garapen jasangarriarekin konprometitutako herritartasuna eraikitzeko?